


BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
77 zenb.
2022ko uzatila

*Jarrai dezagun
Anoeta euskalduntzen*



EUSKARAREN PILULA



BERRIA ala BESTE BAT

Badirudi "berri" hitzaren beste adiera bat hasi dela zabaltzen. Adiera berri hori okerra eta tradizio ga-bea da.

OHIKO AKATSAK

- * Eibarko aurrelariak gol **berri** bat sartu zuen partida amaitzear zegoela.
- * Bilangile**berri**kontratatu koditugureenpresak, lana pilatzen ari baitzaigu.
- * Eraso sexista **berri** bat gaitzetsi dugu gaurko elkarretaratzean.
- * Tanto **berri** bat egin du Lasok, ezker gantxo bikaina jota.

ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

Berri hitzak honako esanahi hauek ditu:

1. Erabili, hondatu edo urratu gabea (Oinetako **berriak** nituen, zuk zapaldu arte).

2. Orain-oraingoa, egin berria (Ogi **berriaren** usaina maite dut).
3. Aurreko zerbaiten ordezkoa (Zuzendari **berria** izendatu dute).

Bistan da ez dagoela gol zaharrik, ez langile zaharrik, ez eraso zaharrik, ezta tanto zaharrik ere, eta argi dago horietan guztietan beste bat erabili behar dugula: **beste gol bat, beste bi langile, beste eraso bat, beste tanto bat**.

Inoiz, biak izan daitezke zuzenak, baina ondo erreparatu esan nahi dugunari, okerrik ez egiteko:

- Proposamen **berria** egin digute (aurrekoa bertan behera utzi dute eta haren ordezeko proposamena egin digute).
- **Beste** proposamen bat egin digute (aurrekoaz gain, badugu beste proposamen bat mahai gainean).

BIZTANLEAK

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BIZTANLEAK (ekainak 30)	1.029	1.075	2.104
JAIOITZAK (otsailaren 16tik ekainaren 30era)	Hiba	Ekain, Jon	3
HERIOTZAK (otsailaren 16tik Ekainaren 30era)	Virtudes, Maria, Ma Jesus, Faustina	Juan, Jose Martin, Pedro Jose, Julian, Joaquin, Victor	10

EUSKARA


Hamarretik zazpi elkarrizketa euskaraz dira Anoetako kaleetan

Hizkuntzen kaleko erabilera neurtu da Anoetan, bosgarren aldiz. Euskararen erabilera %72koa da, 2001ean egin zen lehen neurketan baino 12 puntu altuagoa. 24 urtez azpiko umeek eta gazteek egiten dute euskaraz gehien Anoetako kaleetan, eta nabarmen atzerago dago 45 urtetik gorakoen erabilera.

Zenbat euskara entzuten da Anoetako kaleetan? Hizkuntzen erabilerrari buruzko neurketa egin da bosgarren aldiz herrian, Soziolinguistika Klusterraren eskutik, eta hau da ondorioa: kalean entzuten diren elkarrizketen %72,6 dira euskaraz, %23,5 gaztelaniaz eta %3,9 beste hizkuntza batzuetan. 2001ean egin zen lehen neurketa, eta izan dira aldeketa batzuk ordutik: euskararen erabilera 12 puntu igo da, beste hizkuntza batzuen erabilera ere igo egin da; gaztelaniarena, berriz, jaitsi egin da.

Kale neurketa iazko urrian egin zen Anoetan, Soziolinguistika Klusterraren bidez. Nola? Klusterreko kideak herriko kaleetan ibili ziren, paseoan, eta, jendea hizketan entzun ahala, datu hauek apuntatu zituzten aplikazioan: hiltunen sexua, adina eta zein hizkuntzatan ari ziren. Emaitzak fidagarriak izan daitezten, elkarrizketa asko jaso behar dira, eta lagin oso handia bildu da Anoetan: 813 solasaldi eta 2.404 solaskide.

Anoetan ez ezik, beste 93 udalerritan ere neurtu da kaleko erabilera, eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak argitaratu ditu emaitzak. Oro har, 2017ko berbera izan da euskararen erabilera UEMAko udalerrietan, baina bi aldeko txanpona erakutsi dute datuek: udalerririk euskaldunenetan, arnaguneetan, jaitsi egin da euskararen erabilera (Altzon edo Leaburun, adibidez); arnagune ez diren herrietan, udalerrri handiagoetan, igo (Anoetan eta Villabonan, adibidez).




Adinaren arabera aldeak

Erabilera adin taldearen arabera aztertuta, diferentzia nabarmenak daude. Euskal Herrian hau izan ohi da joera: zenbat eta gazteago, erabilera handiagoa. Hori erabat betetzen da Anoetan: umeek (2-14 urte) dute erabilerarik handiena %87koa, gazteek (15-24 urte) %80koa eta heldu gazteak (25-39 urte) ondoren %75koa; heldu nagusietan (40-64 urte) eta adinekoetan (65 urtetik gora) askoz apalagoak dira ehuneko horiek. Bi adin talde horietan bitik batek egiten du euskaraz.

Adin talde bakoitzaren bilakaerari erreparatzen bazaio, zera da ondorioa: adin talde guztietan izan da gorako joera, umeen igoera handiena.

Bestetik, oso deigarria da umeen presentziak helduen erabileran duen eragina: umeak aurrean daudenean gehiago egiten da euskaraz, helduak soilik daudenean baino; 20 puntu egiten du gora.



Nola interpretatu

Euskararen erabilera %72koa da, beraz, Anoetako kaleetan. Asko ala gutxi da hori? Kontuan hartu behar da zein den herriko egoera soziolinguistikoa. 2016ko azken datuen arabera, anoetarren %72k dakite euskaraz, eta etxean %43koa da erab ean kontuan hartu behar da aldagai bat: kalean dabiltzan jarduna neurtzen du behaketa

honek. Beraz, gerta daiteke herriko bizilagun batzuk behatu ez izana, ez dutelako bizimodurik egiten herriko kaleetan, eta, aldi berean, gerta daiteke Anoetakoak ez diren herritar batzuk ere sartu izana neurketan, behaketa egiteko garaian herrian zebiltzalako (plazan, paseoan...). Hortaz, kaleko erabileraren datuak hau esan nahi du: Anoetako kaleetan zenbat euskara entzuten den, hizketan ari direnak anoetarrek edo bisitariak izan.

Txosten osoa irakurri nahi duenak horretarako aukera du Anoetako Udalaren webgunean.

IRATXULO EUSKARA TALDEA



Badira hiru urte Iratxulo

euskara taldea sortu zenetik, euskarak Anoetan zuen presentziaren beherakadak kezkatuta. Hain zuzen, hizkuntzaren erabilerari buruzko neurketen emaitzek arduratuta hasi ginen elkartzen, eta horren ondorioz sortu genuen Iratxulo euskara taldea.

Bost urte beranduago, hizkuntzen erabilerari buruzko neurketen emaitzak heldu berri zaizkigu, eta horren arabera, kalean herritarren elkarrizketen %72,6 euskaraz izaten dira, %23,5 gaztelaniaz eta %3,9 beste hizkuntza batzuetan. Beraz, duela bost urte baino 14 puntu handiagoa da euskararen erabilera Anoetako kaleetan; hazi egin da beste hizkuntza batzuen erabilera ere, eta kontrara, gaztelaniaren erabilera jaitsi egin da.

Interesgarria iruditu zaigu adin talde bakoitzaren euskararen erabilerari erreparatzea ere. Datu horien arabera, umeek erabiltzen

dute gehien (%87), gazteek gero (%80), heldu gazteak ondoren (%75) eta heldu nagusiek (%52) eta adinekoek erabiltzen dute gutxien (%50,7). Gaur egun, askotan aipatzen da haurrek gutxiago egiten dutela euskaraz, baina datuek kontrakoa diote: heldu nagusiak eta adinekoak dira gutxien erabiltzen dutenak.

Iratxulo euskara taldeko kideoi pozgarria iruditu zaigu Anoetako kaleetan euskararen erabilera igo izana, baina, era berean, herri-tarrei ez erlaxatzeko deia egin nahi dizuegu, inguruko herri euskaldunetan euskararen erabilera jaisten ari delako. Gure ustez, helduok gara haurren eta gaztetxoen erreferente, eta beraz, ardura handia dugu belaunaldi berrien hizkuntza ohituretan.

Euskaldunoi dei egiten dizuegu aurreiritziak alde batera uzteko eta euskara ikasten ari direnekin edo hizkuntzarekin zailtasunak dituztenekin pazientziaz jarduteko. Gogoan izan uste baino jende gehiagok ulertzen duela euskaraz, eta beraz, uste baino jende gehiagorekin hitz egin dezakezula euskaraz. Zentzu horretan, euskaldunak garenok har dezagun konpromisoa herriko esparru guztietan euskaraz aritzekoa, eta oraindik hizkuntza ezagutzen ez dutenak anima daitezela euskarara hurbiltzeko pausoak ematera.

Jarrai dezagun Anoeta euskalduntzen eta euskaraz bizitzeko pausoak ematen!

EUSKARAREN KALE ERABILERARI BURUZKO INKESTA

- 1. Zenbatekoa uste duzu dela euskararen kale erabilera Anoetan?**
- 2. Egindako neurketen arabera, 10etik 7 elkarriketa euskaraz dira. Zer iruditzen zaizu?**
- 3. Zer egin beharko genuke kale erabilera hori handitzeko?**
- 4. Zu, pertsonalki, zertarako prest zaude? Zein konpromiso hartzeko prest?**

David Lopez

Bleydi Lopez

Ane Aizpurua



David Lopez

1- Nire ustez, kalean, gurasoen eta umeen arteko elkarrizketen 10etik 8 dira euskaraz.

2- Bueno, ez naiz oso urruti ibili. Anoetan normalean jendeak euskaraz hitz egiten du, nirekin ere euskaraz hitz egiten dute askok.

3- Kalean erdaldunak eta euskaldunak nahastea, kafetxo bat hartu eta lasai hitz egitea. Horrela, jendeak beldurra galtzen du hitz egiteko.

4- Ikasteko prest nago beti, eta gainera, nahi dut. Nire motibazioa da haurrekin hitz egitea, etxeko lanekin laguntzea...



Bleydi Lopez

1- 10 elkarrizketetatik 8 euskaraz dira, ziur.

2- Oso ondo iruditzen zait; beste herri batzuekin alderatuta euskaraz asko hitz egiten duzue, ia denek. Hitz egiten ez dugunok ingurune hurbila erdalduna dugulako da.

3- Euskaldunei eskatuko nieke pazientzia gehiago izan dezatela gutxiago dakigunokin edo gutxiago ulertzen dugunokin.

4- Nire erronka da haurrari beti euskaraz hitz egitea, eta berak ni ulertzea euskaraz hitz egiten diodanean, ze berak bere lagunei, beste gurasoei eta irakasleei euskaraz hitz egiten die.



Ane Aizpurua

1- 10 elkarrizketetatik 7 euskaraz direla esango nuke.

2- Bada, egia esan emaitza dezente gerturatu da buruan nenbilkien susmora. Hala ere, gure ingurua hain euskalduna izateak herriaren errealitatea distortsiona dezake, eta banuen beldurra ez ote nintzen akats horretan eroriko. Lasaitasuna sentitu dut (poza baino gehiago) datuak ezagututakoan.

3- Bada, espaloitik ez jaitsi. Euskal Herrian Euskarazek erabilitako leloa etorri zait burura galdera entzundakoan. Gure hizkuntzaren kontzientzia hartu eta tinko eutsi beharko genioke gure hizkuntza hautuari, gure eskubideak defendatuz eta konturatu ordurako espainolera (edo erdaretara) pasa gabe.

4- Ulertzen duen edonorekin euskaraz egiteko erabakia hartua dut. Ulertzen ez duenari, berriz, euskaraz jakiteko beharra sentiara zi nahiko nioke, gure hizkuntzaren garrantziaz jabetu dadin.

INGURUMENA

Emankorra izan da Lasarbeko aisialdi gune berria diseinatzeko parte hartze prozesua. Anoetako Herri Hezitzaileen taldeak eta Udalak elkarlanean diseinatu genuen parte hartze prozesua. Horretarako, guneak hezitzailea, herritar guztientzat egokia eta ingurunearekin errespetuzkoa izateko bete beharreko baldintzak finkatu genituen:

Jolas librea eta ez lehiakorra

- Espazio naturalaren izaera mantenduko duena. Bertako natur baliok eta biodibertsitatea erdian jarrita.
- Herritarrak saretzea ahalbidetuko duen gunea, herritar guztiontzat, adin guztiontzat.
- Urtaroek baldintzatu gabe, urte guztian zehar erabiltzeko modukoa.
- Sozializazio eta elkarbizitzarako espazioa.
- Ura elementu garrantzitsua: beste parte hartze prozesuetan sortu izan da aisi eremuetan uraren elementuak egoteko beharra. Gune hau naturala izango denez, urak berriz ere naturara itzuli beharko du.
- Garu egun eremuak duen izaera era erabilera aintzat hartzea. Inguruko baserriekin elkarbizitza bermatzea.
- Muga artifizialik gabeko gunea.
- Herriko puntu beltza ez bihurtzea.

Ondoren, parte hartzeko saio ezberdinak egin ziren: ikastolako ikasleak, jubilatutak, gazteak eta herritar guztientzat irekitako saio. Talde bakoitzak aurreko taldeak landutako ideien gainean egin zuen lan. Honez gain, online galdetegi bat ere zabaldu zen herritarren artean, aurrez aurreko saioetan parte hartzerik izan ez zutenek ere beren ideiak azaltzeko aukera izan zezaten.

Orain bertan ateratako ideiei forma emateko garaia da. Ea laster proiektuaren berri emateko moduan garen!



KULTURA


BASAGAINGO LIBURU BERRIA LIBURUTEGIAN

Duela 25 urte baino gehiagotik Basagaingo herri protohistorikoan egiten ari diren indusketa-lanei esker, Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako argitalpen bat egin ahal izan da aztarnategi horri buruz.

Xabier Peñalver eta Eloísa Uribarri arkeologoek egindako 277 orrialdeko liburu elebidun horretan (euskaraz eta gaztelaniaz) hainbat alderdi jasotzen dira aurreko aroko azken mendeetan eta aro honetako lehen mendeetan (duela bi mila urte inguru) gailur horretan bizi ziren herritarren bizitzari buruz.

Herria kokatuta dagoen esparru geografikoari, testuinguru arkeologikoari eta bertan garatutako ikerketen historiari buruzko laburpen bat egin ondoren, argitalpen berri horren orrialdeetan barrutiaren funtsezko elementuak jasotzen dira, hala nola harresiak, etxebizitzak eta lekuko beste gune esanguratsu batzuk.

Jarraian, bertako herritarren ekonomia deskribatzen da, nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritua, baita beste jarduera batzuk ere, burdinaren metalurgia, adibidez. Eta, horren ondoren, aztarnategian agertutako zenbait material mota (harria, hezurra, zura, zeramika, metala eta beira) aztertzen dira.



Azkenik, Anoetako eta eskualdeko gaur egungo biztanleen aurreko herritar horien gizarte-antolaketa, merkataritza-jarduerak, sinesmenak eta arte-adierazpenak aipatzen dira.

Liburua liburutegian dago, eta maileguan har daiteke. Bestalde, urtero bezala, aurten ere irailean egingo dira indusketa lanak Basagainen, 5etik 25era, hain zuzen ere. Udalak bisita gidatuak antolatuko ditu, inguruko ikastetxeei zuzenduak hala nola irekiak.



LIBURUTEGIA



Maite Frankoren ipuin kontaketa apirilean, Liburuaren Nazioarteko Eguna harira.



Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoarekin solasaldia maiatza bukaeran, Gladys del Estali buruzko liburuaren aurkezpenean. Liburua maileguan har daiteke liburutegian.

UDAKO ORDUTEGIA

Astelehenetan 16:30-19:30

Asteartetik ostiralera 11:00-13:30

ABUZTUAREN 1ETIK 21ERA ITXITA

Liburutegia itxita dagoenean, sarrerako buzoia erabili maileguak uzteko.

LIBURU BERRIAK

Uztaitetik aurrera liburu berri mordoa izango dugu, haur, gazte zein helduentzako. Zatoz liburutegira!



ALBISTE LABURRAK

UDALEKUAK ETA GAZTELEKUA

Gaztelekua 2021eko abendutik itxita egon ondoren, urrian berriro irekiko ditu ateak, herriko gaztetxoek gozamenerako. Udalak abian jarri zuen Gazteria zerbitzua kudeatzeko lizitazio prozesua, eta Loiri enpresako Nahia Artola Olazabal izango da suspertzaile berria.

Enpresa honek kudeatu ditu aurtengo udalekuak ere. Aurtengo udalekuetako lehen txandan 77 umek izena eman zuten, eta bigarrean 60 umek. Neska-mutil kopuru aldetik, nahiko parekoa izan da izen-ematea.

Lehen txandan 9 pertsona ibili dira buru be-larri, zuzendari, koordinatzaile, hezitzaile eta praktiketako hezitzailea kontuan harturik. Bigarren txandan 8 pertsona, partaide guxtiago daudelako.

Bestalde, programazioa adinaren arabera-koa egin da, partaideen berezitasunak eta interesak kontuan harturik. Hala ere, egun berezietan denak aritu izan dira batera, adibidez San Fermin egunean, irteeretan, uraren egunean... Une ederrak jolasean!



ODOLA EMATEKO HURRENGO HITZORDUA

• Urriak 17



AGUR, JUANJO!

Juan Joxe Urkizu Beraza udaletxeko brigadako arduraduna jubilatuta da. 42 urtez lanean aritu ondoren, azkenik agur esateko ordua iritsi zitzaion ekainaren 30ean. Kuadrillek eta herriko jendeak omenaldia egiteko aukera izan zuten herriko festetan, bere urteetako jarduna eskertzeko.

Honen harira, aipatu Anjel Mari Peñagarikanok San Joan bezperan kantatutako bertsoak, Juanjoren lanaren berezitasuna oso ondo islatzen dutenak:



*"....astegunetan ez ezik, lana
egin du jai egunetan,
herriko festak ta euskal jaiak
ta berdin Sanjuanetan....
....Egun batean igeltsero ta
beste batean iturkin,
estali duzu hainbeste zulo,
konpondu hainbat itokin,
zuk zer lan klase ez duzu egin,
hori ezin leike jakin...."*

Tira, orain merezitako atsedena hartzeko garaia iritsi da, bizitzaz lasai eta patxadaz gozatzeko.

Zorionak eta eskerrik asko, Juanjo!

LOATZO

BERRIAK BERRI



Ekaina betea izan genuen Anoetan. Ekainaren 10ean, Anitz dantza-taldearekin jo zuen musika-eskolako gazte talde batek; oso esperientzia polita eta aberasgarria izan zen, elkarlanak beti baitu indar berezia.

Ekainaren 15ean, danborradan parte hartu zuen Loatzo Musika Eskolako txarangak, eta ikasle gazte zein helduek oso giro polita sortu zuten. Horren ondoren, trikitilariak sardina-jatea animatu zuten.



Ekainaren 20an, bero galantarekin izan arren, ikasleen emanaldia egin genuen herriko plazan; txikienek ere parte hartu zuten bertan, eta abesbatza eta hainbat talde izan genituen oholtzan.

Herri bizi batek musika behar du ondoan, mila esker guztioi zuen babesagatik!

IKASTOLA

HABI egitasmoa

Irailean, LH 3 eta DBH 1eko geletan **HABI** egitasmoa jarriko dugu martxan. Zazpi ikastolen artean (horien artean, Anoetako Herri Ikastola) ondutako eta Ikastolen Elkarateak babestutako egitasmoa da HABI. Ikasleei **HA**zteko **BI**-dea eskaintzea eta **HA**zia **BI**harrerako jartzea ditu helburu. Beraz, beste urrats bat ematera goaz duela urte batzuk ikastolan hasi genuen hezkuntza-erlaketan.

Baina, zergatik erladata hezkuntza? Azken urteetan gizartea etengabe aldatzen ari delako eta hezkuntzari eta ikastolari eskatzen zaiona ere asko aldatu delako. Tira, eskakizuna eta ikasleak ongi prestatuta ateratzea ez dira agian horrenbeste aldatu, baina, zer da gaur gaurkoz ongi prestatuta irtetea?

Etorkizunera begira, jakin badakigu gure ikasleek mundu gero eta globalizatuagoan bizitzen ikasi beharko dutela, etengabe ikasten eta kritikotasunez, ziurgabetasunean bizitzeko baliabideak beharko dituztela. Non-dik gatozen eta non gauden ahaztu gabe noski! Ongi prestatzea, beraz, etorkizunean beharko dituzten baliabideak landu eta barnerratzear datza, horretarako eduki kurrikularrak baliatuz, baina pertsonari oinarri sendoak eskainiz.

Ikaslearen irteera-profila edo pertsona-erdua definitu dugu. Baina, zer esperientzia bizi behar ditu ikasleak ikastolan dagoen denbora-tartean hori garatzeko? Nola eragin euren gain?

Azken ikasturteetan, esperientzia horiek definitu eta garatzeko materiala sortzen jardun dugu. Barnetasuna, hezkuntza ekologiko eta



komunitarioa, diziplinarteko proiektuak, egunaren hasiera eta amaierak, eta abar. Hamar esperientzia desberdin definitu eta ikasleentzako hainbat aste mota eraiki ditugu.

Erlaketak benetakoa izan behar badu, eta beste hainbat esparru ere zipriztindu behar ditu: ebaluazioa, familiekiko komunikazioa eta harremana, komunitateko agente guztien rola, espazioak, altzariak, aniztasunaren begirada... Ez da erronka makala, baina saia-kerak egiteko ilusioz eta gogoz beteta gaude. Bizirik gauden seinale!

ANITZ

Kaixo!



2021-2022 ikasturteari amaiera emateko, Anitz Dantza Taldeak 3 emanaldi eskaini ditu:

Herriarteko Dantzari Gazteen topaketa (maiatzaren 6an). Bertan, beste herri batzuetako dantzariak ere parte hartu zuten Anitzeko dantzariekin batera.

Dantzari Txiki eguna (maiatzaren 15ean). Egun osoko ospakizuna izan zen. Goizean, Anoetako Dantza Taldeaz gain, beste herri batzuetatik etorritako dantza-taldeak ere parte hartu zuten, eta arratsaldean, herriko 87 dantzariak (HH 3 – DBH 1) eskaini zuten emanaldia.

Gaueko emanaldia (ekainaren 10ean). LH 3tik gorako taldeak parte hartu zuten, 88 dantzari guztira. Dantza-talde bakoitzak bi edo hiru dantza-emanaldi eskaini zituen. Loatzo Musika Eskolako musikariak ere parte hartu zuten. Lepo bete zen kiroldegia.

Anitzek eskainitako emanaldiek arrakasta handia izan dute, eta herritarrek izugarri gozatu ahal izan dute.

Urtean zehar jaso dugun laguntza eskertu nahi diegu dantza-taldeko ikasleei, gurasoei eta Anoetako Udalari.

Besterik gabe, urrian dantzan elkar ikusiko dugulakoan...



ANITZ Dantza Taldea

Borrokak bateratu, Euskal Herriko Greba Orokorrarekin!



Azken aste hauetan, grebak lehertzen ari dira Euskal Herrian. Inflazioaren gorakadak gure soldatak hondoratzen dituen bitartean, patronalak gure lan-baldintzak are gehiago erasotzen ari da. Grebak sekulako arrakasta izaten ari dira, eta horren erakusle dira Bizkai-ko eta Arabako metalaren greba, Mercedes Benzen greba...

EAJk, ohi bezala, Ertzantzaren errepresioarekin erantzun die mobilizazioei eta, era berean, inpunitate osoa eman die enpresariei eta egiten ari diren mehatxu eta xantaia ilegal guztiei, langileak beldurtu eta grebara irteten ez daitezten.

Baina langile-klasea sekulako irmotasuna erakusten ari da, eta ez metalaren esparruan bakarrik: merkataritzako eta egoitzetako langileak, Osakidetzako langileak, irakasle eta ikasleak ("Hezkuntza Akordioaren" aurrean), pentsionistak (pentsio publiko duinen alde) eta gazteak, prekarietatearen eta bizitza garestitzearen aurka (GKS mobilizazio garrantzitsuak antolatzen ari da zentzu horretan). Pixkanaka, beste sektore askok ere bat egingo dute langile-borroketan, hitzarmenen eta inflazioaren araberrako soldata-igoeren alde, eta murrizketen aurka.

Agerian geratzen ari da ez gaudela enpresako edo sektoreko gatazka isolatuen aurrean. Patronalaren ofentsiba orokorraren aurrean gaude, eta horrek langile-klasearen erantzun orokor eta bateratua eskatzen du.

Gatazka horiek guztiak bateratu behar ditugu, indarra eta eragina areagotzeko. ELA eta LABeko zuzendaritzek (gehiengo sindikalak) duela hilabete batzuk defendatu zuten greba orokorraren ideia heldu behar diote berriro. Orain, lehen baino arrazoi gehiagorekin: ofentsiba patronalaren aurka, PSOE-PP Gobernuaren eta EAJren politika kapitalisten

aurka, eta PPren lan-erreforma bere horretan utzi duen erreformaren aurka. Ezbairik gabe, milaka langilerekin bat egingo luke eta langile askorentzat erreferente bihurtuko litza-teke, baita Estatuan ere, CCOO eta UGTren buruzagiek hartutako bake sozialeko politika penagarri eta otzanaren aurrean.

Behar-beharrezkoa da grebei bultzada ematea, borrokan ari diren sindikatu guztien aldetik batzar masiboak deituz, horrela, delegatu eta langile guztiak elkartu eta ekintza-planak erabaki eta bozkatu ahal izateko. Batzar horiei esker maila altuagoan antolatu ahal izango da borroka, greba-egunen aurretik nahiz egunean bertan pikete informatiboak indartuz eta zabalduz, milaka esku-orri banatuz eta ehunka kartel itsatsiz, herritarren elkartasuna eta babesa lortzeko.

Indar handia dugu, baina indar hori guztia antolatu egin behar da. Egoera ekonomikoa gero eta okerragoa da, eta langile-familiok gero eta zailtasun handiagoak ditugu hilaren amaierara iristeko. Gaitz txikiaren politika, pobretzen gaituzten beheranzko akordioak onartzearena, irtenbiderik gabeko kalezuloa da. Historian zehar lorpenak eta garaipenak ahalbidetu dituen tresna bakarrera jo behar dugu, hau da, greba, borroka eta mobilizazioetara.

Ezker Iraultzaile-Euskal Herria Sozialista



ERREZETA

Tomatea platerera

Gazpatxoa

Idoia Garcia Arbelaiz
Garraxi Taberna

BERTAKOA
BERTATIK

BASERRI BIZIAK
DENA BIZIAK
HERRI BIZIAK

Osagaiak

10 tomate heldu.

Meloi laurden bat.

Baratzuri bat.

Sagar ozpin txorrotada bat.

Oliba olio txorrotada bat.

Dena nahastu, eta jan!!!

On egin!!



ITURRIA: BERRIA

FESTETAKO ZERTZELADAK



